

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresa osasun digitaleko aplikazio bat da, **erabiltzaileei** beren **hortz klinikarekin harreman zuzena** izateko aukera ematen diena. **Aplikazioaren bidez, erabiltzaileek** beren **datu medikoak, hitzorduak eta hortz higiearen jarraipena** modu erraz eta seguruan kudea ditzakete. Horrez gain, **aplikazioak mapa interaktibo bat** eskaintzen du, non **inguruko hortz klinikak** ikusi eta **nahi den klinika aukeratzeko aukera** dagoen.

Aplikazioak bere balio proposamena eskaini ahal izateko, bezeroengana iristeko, bezeroekiko harremanak mantentzeko eta diru sarrerak sortzeko, honako funtsezko jarduerak egiten ditu:

Gure enpresa osasun digitaleko aplikazio bat da ondo azaldu dugun moduan, **erabiltzaileei** beren **hortz klinikarekin harreman zuzena** izateko aukera ematen diena. **Aplikazioaren bidez, erabiltzaileek** beren **datu medikoak, hitzorduak eta hortz higiearen jarraipena** modu erraz eta seguruan kudea ditzakete. Horrez gain, aplikazioak mapa interaktibo bat eskaintzen du, non inguruko hortz klinika guztiak ikusteko eta nahi den klinika aukeratzeko.

Aplikazioak bere balorezko proposamena eskaini ahal izateko, bezeroengana iritsi dadin, bezeroekiko harremanak mantendu ditzan eta diru sarrerak sortu ditzan, honako funtsezko jarduerak egiten ditu:

PRODUKZIOZKO JARDUERAK

Produktu digitalaren sorrerarekin eta hobekuntzarekin lotutako jarduerak dira. Hau da, aplikazioaren diseinua eta garapen teknologikoa (ordutegia, mapak, datu medikoak...) Aplikazioaren etengabeko eguneraketa, funtzionalitate berriak gehituz eta erabil erraztasuna hobetuz. Azkenik sistema informatikoa mantentzea eta aplikazioaren egonkortasuna bermatzea.

ARAZOAK KONPONTZEKO JARDUERA

Erabiltzaileek eta klinikek izan ditzazketen behar eta arazoei erantzutea bideratutako jarduerak dira: Erabiltzaileen zalantzak eta arazo teknikoak konpontzea, kliniken eta aplikazioaren arteko koordinazioa bermatzea (hitzorduen kudeaketa eta datuen eguneratzea) eta datuen pribatutasuna eta segurtasuna zaintzea, informazio sentikorra baita.

PLATAFORMAKO EDO SAREKO JARDUERAK

Aplikazioa plataforma digital gisa funtzionatzeko beharrezkoak diren jarduerak dira: Erabiltzailearen eta hartz kliniken arteko harremana eta interakzioa kudeatzea. Klinikaren sare bat sortu eta mantendu, eskaintza zabala bermatzeko. Plataformaren errendimendua eta erabilera aztertzea, zerbitzua hobetzeko.

Laburbilduz funtsezko jarduerak hauek aplikazioari balioa sortzeko dira, erabiltzaileei zerbitzu erabilgarria eskaintzeko balio dute.